

Ebazpena: R168/2022

Espedientea: 53/2021

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 15ean.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Soffía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak– erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean GFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekiko (aurrerantzean ZAEA) aurkeztu duen gatazkari buruzkoa. Erabakiaren helburua da zehaztea nork duen eskumena GSAZOk –lehen LKPPZN izena zuen– ohiko bizilekua Gipuzkoan duten jasotzaileei 2013. urtetik 2017ra egindako PFEZaren atxikipenak ordainarazteko. Gatazka Arbitraje Batzorde honetan izapidetu da, 53/2021 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- 2018ko maiatzaren 23an, egoitza fiskala Gipuzkoan daukaten zenbait jasotzailerik GSAZOk egindako atxikipenak bidaltzeko eskatu zion GFak ZAEARI, guztira 67.968.935,70 euro, nahiz eta, hainbat informazio eta argibide trukatu ondoren, erreklamatutako zenbatekoa 62.995.325,10 eurora murriztu zen.

2.- 2021eko martxoaren 10ean, eskatutako atxikipen gehienak bidaltzea onartu zuen ZAEAK, guztira 54.782.546,11 euro.

Ukatutako atxikipenak Estatuko Administrazio Instituzionaleko beste erakunde batzuetan (erakunde autonomoak edo enpresa-erakunde publikoak ez zirenetan) zerbitzuak eman zituzten jasotzaileei (edo, zenbait kasutan, hildako ezkontideei) dagozkie.

3.- 2021eko maiatzaren 7an, eskumena baliatzeari uzteko eskatu zion GFAk Estatuari, eta 4.226.583,78 euroko atxikipenak erreklamatu zizkion.

4.- 2021eko ekainaren 7an, ZAEAk uko egin zion eskumena baliatzeari uzteko errekerimenduari, bere ustez Ekonomia Ituneko 7. Bi artikuluen aurreneko paragrafoa aplikatu behar delako.

5.- 2021eko uztailaren 5ean, GFAk gatazka aurkeztu zuen, eta gatazka hori 53/2021 espediente-zenbakiarekin izapidetu da, prozedura arruntaren bidez.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Ekonomia Itunaren 66. artikulua ezartzen du eskumen hauek dituela Arbitraje Batzordeak:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

Horren arabera, eta Ekonomia Ituneko 7. artikulua interpretatuz, Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, planteatutako eztabaidaren inguruabarrak kontuan hartuta.

2.- Aplikatu beharreko arauak

Ekonomia Itunaren 7. artikulua (*Lan-etekinak direla-eta egindako atxikipenak eta konturako sarrerak*) hauxe adierazten du Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomi Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legean biltzen den jatorrizko testuan (horixe aplikatu beharra dago *ratione temporis*):

Bat. Lanaren etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

(...)

b) Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen araubide publikoetatik hartzen diren pentsioen, hartzeko pasiboen eta prestazioen etekinak, baita Enpleguko Institutu Nazionaletik, montepio eta mutualitateetatik, enplegua sustatzeko funtsetatik, pentsio-planetatik eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetatik datozenak ere, eta enpresen eta beste erakunde

batzuen prestazio pasiboak, baldin eta jasotzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago.

(...)

Bi. Aurreko apartatuan xedatutakoa hala izan arren, Estatuko Administrazioari dagozkio Estatuak bere funtzionarioei eta lan-kontratuz eta administrazio-kontratuz dituen enplegatuei emandako ordainsari aktibo eta pasiboen gaineko atxikipenak; jasotzaileak barik beste pertsona batek sortutako pentsioak ere ordainsari horien artean sartzen dira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko erakunde autonomoetako eta erakunde publiko enpresarialetako funtzionarioei eta langileei”.

Ekonomia Ituna aldatzeko 28/2007 Legeak hamargarren xedapen gehigarria sartu zuen, honako hau dioena:

Zerbitzu publikoak hobetzeko estatu-agentzietan buruzko uztailaren 18ko 28/2006 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren arabera, erakunde autonomo bat edo enpresa-erakunde publiko bat agentzia bihurtzen denean, 7. artikuluan halakoentzat aurreikusten den eskumen-araubidea aplikatuko zaie organismo autonomo edo enpresa-entitate publiko horiei.

10/2017 Legeak 7. Bi artikulua aldatu eta honela utzi du:

Bi. Aurreko apartatuan xedatutakoa hala izan arren, Estatuko Administrazioari dagozkio Estatuak bere funtzionarioei eta lan-kontratuz eta administrazio-kontratuz dituen enplegatuei emandako ordainsari

aktibo eta pasiboen gaineko atxikipenak; jasotzaileak barik beste pertsona batek sortutako pentsioak ere ordainsari horien artean sartzen dira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko erakunde autonomoetako eta erakunde publiko enpresarialetako funtzionarioei eta langileei, ez eta Estatuko merkataritza-sozietateetako, Estatuan adskribatutako partzuergoetako, Estatuko fundazioetako, transferitu gabeko unibertsitate publikoetako eta Euskadiko lurraldean dauden portuetako agintarizetako ere.

3.- Ekonomia Ituneko 7. artikuluari buruzko doktrina- eta jurisprudentzia-aurrekariak

Arbitraje Batzordearen 15/2016 eta 4/2017 ebazpenen bidez ebatzi da zeinena den funtzionarioei eta langile lan-kontratudunei edo administrazio-kontratudun langileei ordaindutako hartzeko aktibo zein pasiboengatik (alarguntzakoak eta zurztasunekoak barne) estatuko (Lurralde) Administrazioak eta estatuko Administrazio Institutuzionalak egindako atxikipenak ordainarazteko eskumena (ebazpen horiek TPFERi dagokion 24/2014 gatazkan eta Mri dagokion 10/2015 gatazkan eman ziren, hurrenez hurren). Eskumena, gainera, Auzitegi Gorenak berretsi zuen, 2018ko apirilaren 17ko Epaiaren bidez (ECLI:ES:TS:2018:1398).

Arbitraje Batzordearen 4/2017 Ebazpenaren abiapuntua da Ekonomia Ituneko 7. artikularen testua ezin dela ulertu Estatuko Administrazio Orokorraren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko 6/97 Legearen (aurrerantzean EAOAFL) testuingurutik kanpo. Lege horrek *erakunde publiko* deitzen die, oro har, Estatuko Administrazio Orokorrari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko erakundeei, eta horiek *erakunde autonomo eta enpresa-erakunde publiko* gisa sailkatzen ditu 43. artikuluan.

Hori dela-eta, Arbitraje Batzordearen ustez, Estatuko Administrazio Instituzionala osatzen duten erakunde guztiak barne hartzen dituzte Ekonomia Itunaren 7.2 artikuluan aipatzen diren erakunde autonomoek eta enpresa-erakunde publikoek.

Izan ere, 28/2006 Legeak EAOAFLren 43. artikuluari egindako aldaketak (estatu-agentziak sartu zituen) eragin zuen Ekonomia Ituneko hamargarren xedapen iragankorra sartzea, estatuaren alde bakarreko jardunak (erakunde autonomoak edo enpresa-erakunde publikoak agentzia bihurtuz) atxikipenak ordainarazteko eskumena aldatzea eragin ez zezan.

Hortaz, Arbitraje Batzordearen iritziz eskema honi jarraitzen dio enplegatu publikoen atxikipenak ordainarazteko eskumenak:

a) Funtzionarioen eta enplegatu publikoen ordainsarieratik datozen atxikipenei eta konturako sarrerei aplikatu beharreko arau orokorra da ordainsariaren arabera dagokion lotunea aplikatu behar dela; zehazkiago, lanpostuaren kokalekua edo pentsiodunaren bizilekua.

b) Arau orokorra dela-eta, salbuespen bakarra dago ezarrita estatuko administrazioak ordaindu eta betiere estatuko (Lurralde) Administrazioari berari egozten zaizkion ordainsari aktibo zein pasiboen atxikipenetarako.

Salbuespena guztiz murriztailea da, eta estatuko erakunde autonomoetako eta enpresa-erakunde publikoetako funtzionarioak eta langileak espresuki uzten ditu aplikazio-eremutik kanpo, horiek ere arau orokorrera bideratuz. Hor Estatuko Administrazio Instituzional osoko funtzionarioak sartzten direla ulertu behar da.

c) Itunak ez du adierazten Euskadik eskumena duenik bere administrazioak bere funtzionarioei eta enplegatu publikoei ordaindutako ordainsarrietatik eratorritako atxikipenen eta konturako sarreraren gainean.

Auzitegi Gorenak Arbitraje Batzordearen ebazpena berretsi zuen, eta erabaki hauek hartu zituen:

a) Ekonomia Ituneko 7.2. artikulua 1. paragrafoko tartekiak arau berezi bat ezartzen du 7.1. artikuluari dagokionez eta, hortaz, modu hertsia eta zorrotzean interpretatu beharra dago.

b) Ekonomia Ituneko 7. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako, MUFACE erakunde autonomo bat da eta, hortaz, 7.2. artikuluko 2. paragrafoan jasotako araua aplikatu behar zaio.

c) M erakunde autonomo bat (edo enpresa-erakunde publiko bat) ez izatearen kasuan ere, *erakunde autonomo gisa katalogatuta ez egotearen ondorioa ez litzateke izango 7.2. artikuluko araura jo beharko genukeela, 7.1. artikuluko lex loci edo lekuaren arau orokorrera jo beharko genukeela baizik.*

Beraz, badago adierazitako interpretazioa zeharo bermatzen duen zerbait: Arbitraje Batzordearen doktrina irmoa eta Auzitegi Gorenaren epai irmo bat.

ZAEAREN ustez, ez dago Auzitegi Gorenaren jurisprudentziarik Kode Zibilaren 1.6 artikuluari dagokionez, eta, hortaz, behin eta berriz errepikatzen du Ekonomia Ituneko 7.2. artikuluari egiten dion interpretazioa. Interpretazio horren arabera, estatuari dagokio ordaintzen dituen atxikipenak ordainaraztea, estatuko (Lurralde) Administrazioari atxikitako langileei dagokienez, bai eta erakunde

autonomoa edo enpresa-erakunde publikoa ez den haren Administrazio Instituzionaleko edozein erakunderi dagokionez ere.

Arbitraje Batzorde honen ustez, ordea, badago gatazka honi mutatis mutandis aplikatu dakiokeen doktrina irmo eta errepikatua, Auzitegi Gorenak epai zorrotz eta argitzaile batean berretsi duena. Doktrina horri erreparatuta, ez da beharrezkoa oinarri juridikoak ematen luzatzea eta, hortaz, errepikatutzat jotzen dira haren 15/2016 eta 4/2017 ebazpenetan eta Auzitegi Gorenaren 2018ko apirilaren 17ko Epaian jasotako oinarri juridikoak.

4.- Administrazioen arteko zuzenbide publikoko kredituen preskripzioari buruzko administrazio-doktrina eta jurisprudentzia

Arbitraje Batzordeak 11/2014 Ebazpenean eta Auzitegi Gorenak 2015eko abenduaren 15eko, 2022ko otsailaren 10eko, 2020ko abenduaren 3ko, 2021eko urtarrilaren 28ko eta 2020ko maiatzaren 18ko epaietan (ECLI: ES: TS: 2015:5337, ECLI: ES: TS: 2022:596, ECLI: ES: TS: 2020:4077, ECLI: ES: TS: 2021:372 eta ECLI: ES: TS: 2020:1010 epaiak, hurrenez hurren) irizpide baketsu eta errepikatua ezarri dute: administrazioarteko eskubidea izaera publikoko aurrekontu-eskubidea dela, administrazioak zergadunaren aurrean duen zerga-eskubideaz bestelakoa; eta administrazioen arteko eskubidearen preskripzio-epaia bidegabeko diru-sarrera egiten den unean hasten dela, eta ez dela eteten zergadunaren gaineko eskumenaren jabetzat jotzen den administrazioak (hirugarren bat izaten da administrazioen arteko harreman juridikoan) zerga-prozeduran egiten dituen jarduketan ondorioz.

5.- Ondorioak

GFARI dagozkio norbera edo, hala badagokio, ezkontidea, Estatuko Administrazio Instituzionaleko erakundeei atxikita egotetik eratorritako

prestazioak jasotzen dituztenei egiten zaizkien atxikipenak, jasotzaile horiek ohiko bizilekua Gipuzkoako Lurralde Historikoan badute.

2013an egindako atxikipenei dagokienez, GFAk zerga-kreditu bat du LKPPZNrekiko (zentzu horretan, *atxikitzailea* da eta garrantzirik gabekoa da bere *administrazio* izaera), zerga-araudiko arauen arabera preskribatuta ez badago administrazio-bidetik gauzatu ahal izango dena; baina ZAEArekiko duen zuzenbide publikoko administrazioarteko kreditua, atxikipenen hartzaile (bidegabea) denez, preskribatuta dago 2018ko maiatzaren 23aren aurretik sartutako atxikipenei dagokienez.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

1.- Preskribatutzat jotzea GFAk ZAEArekiko duen administrazioarteko eskubide publikoa, 2018ko maiatzaren 23aren aurretik bidegabe sartutako atxikipenei dagokienez.

2.- Deklaratzea GFari dagozkiola zerbitzuak estatuko Administrazio Instituzionalean eman dituzten Gipuzkoako egoiliarrei (haiei edo haien ezkontideei) 2013tik 2017ra egindako atxikipenak, ohiko bizilekua Gipuzkoan duten heinean.

3.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta GSAZOri jakinaraztea.